



KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAN INGURUMEN- IRIZPIDEAK TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

BIDEAK GARBITZEKO ETA HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAK

Prestatze-data: 2016

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Dibulgazio-dokumentu hau dokumentu-bilduma baten barruan sartzen da, eta helburua da erakunde publiko nahiz pribatuen **erosketa eta kontratazioetan ingurumen-alderdiak txertatzea** ahalbidetzea eta haren abantailak jakinaraztea.

Dokumentu honen bidez modu errazean azaldu nahi da zein alderdi hartu behar diren kontuan erosketa edo kontratazio ingurumenarekiko arduratsu bat egiteko. Kontuan hartu beharreko giltzarriak berrikustez gain, ingurumena zaintzen duten produktuak/zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusien berrikusketa bat ere egiten du. Azkenik, erosketa- eta kontratazio-prozesu osorako jarraibideak ezartzen ditu, prozesua ondo amaitzeko.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA da Eusko Jaurlaritzak berak Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez prestatutako laguntza-tresna nagusia.

Administrazio publiko mota desberdinetan erosketa eta kontratazio berdea modu integralean hedatzeko behar den informazio guztia biltzen du eskuliburu honek.

Argitalpeneko testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

BIDEAK GARBITZEKO ETA HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZU BAT KONTRATATZEA, INGURUMEN-IRIZPIDEAK KONTUAN HARTZEN DITUENA

Zalantzarik gabe, bideak garbitzeko eta hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak funtsezkoak dira gure udalerrien eguneroko kudeaketan.

Horrez gain, kontuan izan behar da oso garrantzitsuak direla halako kontratazioak, haiek kudeatzen dituzten administrazioek behar dituzten baliabide ekonomikoengatik ez ezik, lizitazioaren beraren izaeragatik ere bai, zeina nagusiki ingurumenari lotuta baitago. Halako lizitazioetan ingurumen-klausulak txertatzea aukera garrantzitsua da udalentsat eta beste erakunde publiko batzuentzat, erakunde publikoek berek jasagarritasunarekin duten konpromiso erreala herritarren aurrean indartzeko.

Kontratazio eta erosketa berdearen bidez ekarpen positiboa egin dezakegu, halako zerbitzuetan ingurumen-irizpideak sartuta. Nola? Ikus dezagun.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Ingurumen-irizpideei jarraitzen dien bideak garbitzeko eta hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu batek inpaktu negatibo nagusiak ahalik eta gehiena gutxitzen laguntzen du. Hona hemen horri buruzko zenbait ideia:

Funtsezko zenbait kontzeptu

BIDEAK GARBITZEKO zerbitzuaren zer alderdi hartu behar dira kontuan ingurumen-inpaktu negatiboak direla eta?

1. Zerbitzuaren diseinua bera, udalerrriaren behar errearen arabera. Ez da egin behar behar baino gehiago.
2. Garbiketako makinak eta ibilgailuak, erregaiak kontsumitzen dituztelako, atmosfera kutsatzen duten gasak isurtzen dituztelako, zarata sortzen dutelako eta ingurumenerako kaltegarriak diren olio lubrifikatzaileak askatzen dituztelako.
3. Garbiketa-lanetako ur-kontsumoa eta garbiketa-produktuak.

HONDAKINAK BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO zerbitzuaren zer alderdi hartu behar dira kontuan ingurumen-inpaktu negatiboak direla eta?

- Bilketa-guneak eta hondakinak jasotzeko ibilbideak behar bezala diseinatzea.
- Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko ibilgailuak, erregaiak kontsumitzen dituztelako, atmosfera kutsatzen duten gasak isurtzen dituztelako, zarata sortzen dutelako eta ingurumenerako kaltegarriak diren olio lubrifikatzaileak askatzen dituztelako.

Zer neurri har daitezke inpaktu horiek gutxitzeko?

- Bi zerbitzuak diseinatzeko behar adina denbora hartzea, maiztasunak, ibilbideetako kilometroak eta abar murrizteko.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoa eragingo duten ibilgailu-flota bat izatea.
- Ingurumena gehiago zaintzen duten produktuak eta makinak erabiltzea (zabor-poltsak, garbiketa-produktuak, hondakinak biltzeko edukiontziak, etab.).
- Ura ahalik eta gehiena aurrezteko eta energia ahalik eta gutxiena kontsumitzeko aukera ematen duten teknikak, prozedurak eta zerbitzua antolatzeko moduak hautatzea.
- Ingurumenaren alorrean sentsibilizatzeko, etengabeko trebakuntza ematea langileei.

Funtsezko zenbait kontzeptu

Ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- Hauek dira ekoetiketa ofizial garrantzitsuenak:

Etiketa eta logotipo ofiziala	Europar Batasunaren etiketa ekologikoa	Aingeru Urdina	Beltxarga Zuria	UNE-EN ISO 14006 EKODISEINU-ziurtagiria
GARBIKETA-PRODUKTUAK	•		•	
ZABOR-POLTSAK		•		
EDUKIONTZIAK		•		•
ZABORRA BILTZEKO KAMIOIA		•		
BIDEAK ERRAZTATZEKO MAKINA		•		

- Enpresen beren ziurtagiriak: Produktuen ekoetiketez gain, komeni da enpresek Ingurumen Kudeaketako Sistemen ziurtagiria ere izatea, zeinak ziurtatzen duen haien jarduerako arauak eta gutxieneko ingurumen-alderdi batzuk betetzen dituztela. EMAS, ISO 14001 eta Ekoscan dira ziurtagiri nagusiak. Horrenbestez, garbiketako edo hondakinak biltzeko eta garraiatzeko enpresak hautatzean, lehentasuna eman behar zaie ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistemaren bat duten enpresei.



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Zerbitzua kontratatzekeo prozesuan nahiz berezko kudeaketa egin behar denean, erosle, kudeatzaile eta kontsumitzaile gisara erabaki eta eragin dezakegun zenbait une daude. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. unea. Beharrak

- Bideak garbitzeko zerbitzurako, garbitu beharreko eremuen, sarbideen ezaugarrien eta haien erabilera-intentsitatearen inbentarioa egin beharko da. Informazio horri esker, behar bezala diseinatu ahal izango da kontratatu nahi den zerbitzu globala, eta zehaztu ahal izango da zer zerbitzu kontratatu behar diren (eskuz eta/edo mekanikoki erraztea; eskuz eta/edo mekanikoki ureztatzea; hobiak, parkeak, eta azokak garbitzea, jaiak, eta abar), eta eremu bakoitza zer maiztasunekin garbitu behar den, behar errealean arabera.
- Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzurako, zehaztu beharko dira bildu beharreko frakzioak, bilketa-motak eta lehendik dauden bilketa-guneak, eremu bakoitzeko biztanleria-dentsitatea eta erabilera desberdinak, eta hondakin helmuga. Datu horiek guztiak zerbitzua diseinatzeko abiapuntua izango dira. Gune-kopurua eta maiztasuna zehaztuko dira, eta, hortik aurrera, zerbitzua emateko ibilbide optimizatuak diseinatu ahal izango dituzte lizitatzailleek.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. unea. Kontratazioa

Bideak garbitzeko eta hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren diseinua definitu ondoren, zerbitzua kontratatzekeo unea da (edo geure zerbitzua egokitzekoa). Nola? Gai honekin lotutako ingurumen-irizpideak tartekatuz.

Administrazioari zerbitzu hori ematen dioten enpresa handiak eta ETEak daude. Normalean, enpresa handiek kontratu handiak lortzen dituzte (mankomunitate eta udal handienak); enpresa txikiek, berriz, udalerrri txikien kudeaketa hartzen dute beren gain. Enpresa handi guztiek betetzen dituzte ingurumen-irizpide batzuk, baina enpresa txiki eta ertainentzat zailagoa da haiek betetzea. Gomendagarria da hausnarketa bat egitea, baldintza-agirien ingurumen-zorroztasunaren MAILA erabaki aurretik.

Enpresak hautatzeko kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Enpresa lizitatzailleek koordinatzaile bat eduki behar dute, lan-osasunari, segurtasun-estandarrei, garbiketa-metodoei eta zerbitzuari lotutako ingurumen-alderdiei buruzko prestakuntza duena.
- Gomendagarria da ingurumen-kudeaketako sistema bat (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo antzekoren bat) ziurtatua duen enpresa bat hautatzea kontratatu beharreko

2. unea. Kontratazioa

zerbitzuetarako, edo zerbitzuak ematen direnean laneko osasuna edo ingurumena zaintzeko prozedurak eta jarraibideak izatea.

Ibilgailuetarako ingurumen-irizpideak:

- Zaratatik babestea. Zerbitzuko eragiketak egiteari lotutako zarata minimizatzea bermatu behar dute ibilgailuek (kamioi- eta edukiontzi-kolpeak moteltzeko mekanismoak, zarata isolatzeko panelak makinetan...).
- Trinkotze-sistemak. Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuan, hondakin-fluxu handietarako (bilketa gordina eta ontziak, adibidez), trinkotze-sistemak izan behar dituzte hondakinak biltzeko ibilgailuek.
- Olio lubrifikatzaileak. Ibilgailuaren mantentze-lanetan, biskositate gutxiko olio lubrifikatzaileak edo olio lubrifikatzaile birsortuak —birsortutako olio-oinarriak gutxienez % 25 izan behar du— erabili behar dituzte motorretarako.

Garbiketa-produktuetarako ingurumen-irizpideak:

- Ekoetiketa duten produktuak. Usainak eta orbanak deuseztatzeko erabiltzen diren garbiketa-produktuek bete behar dituzte I motako ekoetiketaren batean (Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria edo baliokideren bat) jasotako baldintzak.
- Ontziak. Garbiketa-produktuen ontziak behar bezala etiketatuta egon behar dute, dosifikazio-gailu zehatzak eduki behar dituzte, kasu bakoitzeko beharren arabera, eta edukiera handiko ontziak izango dira edo produktu kontzentratuak erabiliko dira.

Uraren kudeaketari lotutako ingurumen-irizpideak:

- Uraren kudeaketa. Erabiltzen den ura behar bezala kudeatu behar da, eta horretarako, likidoak dituzten hondakinen kontaktua (euri-urak barne) murrizteko neurriak hartu behar dira, ubide naturaletara isurketarik ez egiten ahalegindu behar da eta, ahal den guztietan, ureztatzeko berrerabiliko da. Horretarako berariazko neurriak zein diren zehaztu behar da.
- Ura aurrezteko sistemak.
 - Enpresa lizitatzailerak ura aurrezteko sistemak izan behar ditu instalazioetan.
 - Bideak garbitzeko zerbitzurako ura aurrezteko sistemak eduki behar dira, batez ere galtzadak urez garbitzeko eta presiopeko ureztatze-lanetarako.
- Uraren jatorria. Bideak garbitzeko zerbitzurako, lizitatzailerak, ahal den guztietan, baliabide alternatiboetako ura eta edateko egokia ez dena erabiliko du, eta zisterna guztiak halako urez kargatuta aterako dira dagokien parketik.

Zerbitzuen kudeaketa hobetzea.

- Plataforma integral bat erabiliko da eskainitako zerbitzuak kudeatzeko eta kontrolatzeko eta trazabilitatea bermatzeko. Identifikazio-sistema bat eta lokalizazio-sistema bat duen sistema integratu bat izango du ibilgailu bakoitzak. Plataforma horrek aukera emango du zerbitzuen plangintza eta kudeaketa optimizatzen.

2. unea. Kontratazioa

Hondakinak BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUAK: irizpide espezifikoak

- Ibilbideen plangintza. Zerbitzua optimizatzeko egokitzat jotzen dituen hobekuntzak proposatu behar ditu enpresa esleipendunak, hala nola edukiontzi berriak jartzea, ibilbideen plangintza optimizatzea, lehendik dauden edukiontziak lekuz aldatzea, bilketa-maiztasunak aldatzea, ordutegiak aldatzea eta abar.

Bideak garbitzeko ZERBITZUAK: irizpide espezifikoak

- Garbiketa-plana. Enpresa esleipendunak bideak garbitzeko plan bat aurkeztu behar du, makinaren ibilbidea zehaztua duena, urtean egiten den kilometro-kopurua murrizteko eta garbiketa auzo/eremu bakoitzera egokitzeko, erabileren eta urte-sasoen arabera.
- Erraztatze-lanak. Eskuz erraztatze lanetan, hondakinak biltzeko orgak prestatuta egon behar du zaborra gaika jasotzeko, bereiz biltzeko gutxienez papera, beira, ontziak eta errefusa.
- Zabor-poltsak. Zakarrontzi bidez hondakinak bereiz daitezkeen udalerrietan, hainbat koloretako poltsak erabiliko dira hondakin bakoitzerako (papera, urdina; ontziak, horia; beira, berdea; gainerakoak, beltza). Poltsek I motako ekoetiketaren bateko baldintzak bete behar dituzte, produktuaren formulazioko konposatu kimikoei dagokienez (Aingeru Urdina edo baliokidea izan daiteke).
- Garbiketa-teknikak. Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten garbiketa-teknikak erabili behar dira. Adibidez, hauek:
 - Kartelak eta pankartak hidropresio-makina bat erabiliz kentzea; edateko egokia ez den ur hotza botako du makinak harea-zorrotadaz.
 - Pintadak eta graffitiak garbitzea. Harea gehigarriekin —sodio bikarbonatoa, adibidez— jaurtitzeko sistema erregulagarri bat duten mekanismoak erabiliko dira presio baxuan.
 - Belarrak kentzea bitarteko mekanikoen bidez, eta, nahikoa ez bada, disoluzio ez-oldarkor batez fumigatzea.

Irizpide horietatik guztietatik garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak balioetsi edo exijitu behar ditugu kontratazioan. Irizpideak hautatzeko, kontuan hartu behar da kontratuaren tamaina, eta proportzionaltasunaren printzipioari jarraitu behar zaio; ez da lehia galarazi behar, eta ETE-ei sartzen lagundu behar zaie.

Administrazio batek ezaugarri horiek dituen zerbitzu bat kontratatu nahi badu, Ihobek argitaratutako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburuan jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun-maila daude: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Esteka interesgarriak

- <http://www.ihobe.eus> webgunea kontsultatu dezakezu, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (bideak garbitzeko eta hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.